



**UPV/EHUko  
VITORIA-GASTEIZKO  
INGENIARITZA  
ESKOLAREN PLAN  
ESTRATEGIKOA  
2021-2023**

UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolaren  
Plan Estrategikoa  
2021-2023

2020ko abenduaren 18ko Eskolako Batzarrean onartutakoa.

# AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Metodologia
3. Egitekoa
4. Ikuspegia
5. Balioak
6. Gaur egungo egoeraren diagnostikoa
7. Ardatz estrategikoak
8. Adierazleak
9. Lan taldea

# 1. SARRERA

Dokumentu hau UPV/EHUko Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolaren (Aurrerantzean, VGIE) 2021-2023 aldirako Plan Estrategikoa da. Bertan, Ikastegiko gogoeta estrategikoa egiteko jarraitutako prozesua deskribatzen da, baita hura egitean igarotako etapatan ateratako ondorioak ere.

Plan Estrategiko honek VGIEk aldi horretan lortu nahi dituen helburuak jasotzen ditu, horiek lortzeko egokien iritzitako estrategia eta ekintzekin batera. Era berean, Ikastegiak aurrera egiteko jarraitu nahi duen ildo ezartzen da, eta ikasle, enpresa sare, UPV/EHU, unibertsitateko kide eta gizarte osoarentzat aurrerapen nabarmena ekarriko duten arloak azpimarratzen dira.

# 2. METODOLOGIA

Plan Estrategikoa eskolako kolektiboen parte hartzea izan duen prozesu baten bidez osatu da. Hasiera batean, lan taldeak "Berrikuntza Estrategikoko Joerak" ikastaroan parte hartu zuen, estrategia korporatiboei lotutako baliabideen erabilerari buruzko prestakuntza jasotzeko.

Gogoeta estrategikoko prozesuan honako fase hauek eman dira: lehen fasean, VGIEren izateko arrazoia aztertu, eta gauzak nola egin nahi diren eta nora iritsi nahi den zehaztu da; bigarren fasean, gaur egungo egoera, VGIEren ingurunea eta haren barne ahalmenak aztertu dira; hirugarren fasean, aukera estrategikoak finkatu dira, haien ebaluazioa eta aukeraketa eginez; eta, azken fasean, hartutako erabakiak martxan jarri behar dira, Plan Estrategiko baten bidez, non lerro estrategikoak, ekintzak eta adierazleak jaso baitira.

# 3. EGITEKOA

Hausnarketa estrategikoaren lehen etapan, VGIEren egitekoa berrikusi eta eguneratu zen. Horretarako, puntu hauek aztertu ziren:

- Ikastegiaren izateko arrazoia
- Egindako jarduerak
- Zer kolektiborentzat diharduen
- Aktibo bereizgarriak

Lan taldeak alderdi horiek aztertu zituen, eta haren ondorioetan, VGIEren funtsezko nortasunaren ikur bereizgarriak txertatzen joan zen. Ondorio gisa, Egitekoa honela eguneratu zen:

*Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola UPV/EHUko unibertsitate ikastegi bat da, eta haren helburu nagusiak dira ingeniaritzaren arloko ezagutza sortzea, garatzea eta transmititzea eta ikerketa babestea eta bultzatzea, enpresa ehunarekiko banan-banako lankidetzak erabatekoak. Haren erantzukizuna profesionalen prestakuntza integrala da, ikasleen artean sormena eta ekimen propioa, espiritu kritikoa, berrikuntzarako gaitasuna, etengabeko hobekuntza eta*

*ingurunearekiko egokitzapena sustatuz, gizartearen behar aldakorrak asetzeko kalitate, jasangarritasun eta gizarte erantzukizun irizpideekin.*

Horretarako, prestakuntza eskaintza zabal bat du, inguruneako enpresa eta erakunde sarearen etengabeko lankidetzan oinarritzen dena, ikasleek azken aurrerapen eta garapen teknologikoen berri izan dezaten. Era berean, eskolak ikerlana etengabe garatzea ahalbidetzen duten giza baliabideak, ekipoak eta instalazioak ditu.

## 4. IKUSPEGIA

Ikuspegiak Plan Estrategikoaren aldiaren amaieran lortu nahi den helburua definitzen du. Erronkak aurreikusi behar ditu, baina aldi berean neurtzeko eta lortzeko modukoa izan behar du. Ikuspegi erantzuten die, alde batetik, VGIEk lortu nahi dituen emaitzei, eta bestetik, ikasleek, UPV/EHUK, enpresa ehunak, erakundeek, komunitate zientifikoak eta teknologikoak eta, oro har, gizarteak eskola hautemateko moduari.

Hala, VGIEk:

1. Ikasleei kalitatezko prestakuntza bat eman nahi die; hartara, Ikastegian prestatu ondoren, erreferenteak izango dira beren lanpostuetan, eta etorkizunean planteatuko zaizkien erronkei zuzen erantzuteko gai izango dira, modu etikoan eta sortzailean jardunez, etengabe aldatzen ari den ingurune gero eta zorrotzago batean. Prestakuntza hori emanda, ikastegiak bikaina izan nahi du, ingeniartzaren arloko kalitatezko eskaintza akademiko zabal batez; eskaintza bat, gizartearen eta enpresa ehunaren askotariko beharrei egokitu dena.
2. Ikerketa eta sormen profila bultzatu nahi du, ikastegiko langileen eta ikasleen artean, gizarte ezagutzaren bidez eraldatzeko asmoz. Erreferentziako ikastegi gisa aitortua izan nahi du, ikerketa proiektuetan parte hartzeko duen ahalmen eta prestasunagatik eta bere ikerketa jardueraren sorrera, dibulgazio eta hedaduragatik.
3. Inguruko enpresa ehunarekiko harremanak areagotu eta hobetu nahi ditu, enpresen garapenean lagunduta eta unibertsitate-enpresa harremanetan erreferente bat izanda.
4. Erreferentziako ikastegi bat izan nahi du, Arabako gizarte ingurunean, eta gizartearen eta haren interes taldeen aitortza jaso nahi du, ikastegi prestigiotsu, moderno eta berritzaile gisa, zeina, ingeniartzaren arloan prestakuntza bikaina eskaintzeaz gainera, giza eta gizarte balioen transmisorea eta eredia izango baita eta garapen jasangarri eta gizarte erantzukizunarekiko konpromisoa izango baitu, gizartearen beharrekin lerrokatuta.
5. Bere langileen, UPV/EHUren eta beste unibertsitate batzuen aitortza jaso nahi du, ingeniartzaren arloko erreferente gisa, eta aurrerabide profesionala, irekiera eta lankidetzatza lortzeko borondateagatik.

## 5. BALIOAK

Gogoeta estrategikoaren hurrengo pausoa VGIEren balioak berrikustea izan da.

Erakunde orok ditu bere izaera islatzen duten eta gainerakoengandik bereizten dituen ezaugarriak. Haren portaerek, jarduteko moduak edo egoeren aurrean hartutako erabakiek printzipio batzuei erantzuten diete, eta printzipio horiek erakundearen eta hura osatzen duten pertsonen oinarrian daude.

Ziklo estrategiko bakoitzean, balio jakin batzuk bultzatu behar dira, erakundea nahi den norabidean joan dadin. Eskolako kide diren pertsonak balio horiek berenganatu behar dituzte, haien eginkizuna planifikatutako ekintzak ezartzea izango baita.

Helburu hori edukita, Egitekoa eta Ikuspegia aintzat hartuta, VGIEk Plan honetan aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen diren balioak berrikusi eta eguneratu ditu.

Horretarako, aurreko Plan Estrategikoaren balioak aztertu dira, eta, dagokion gogoeta egin ondoren, ziklo estrategiko berrirako egokien jotzen direnak hautatu dira. Honako balio hauek dira:

- Jarrera berritzailea eta zerbitzukoa
- Profesionaltasuna
- Konpromisoa eta erantzukizuna
- Kooperazioa eta koordinazioa
- Gure jarduerak interes taldeetara orientatzea.
- Ingurumen, etika eta gizarte balioak errespetatzea eta babestea
- Malgutasuna eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Kide izatearen sentimendua.

## 6. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Bigarren etapan, egoeraren diagnostiko bat egin dugu, lehiatuko garen ingurunearen joerak eta gure barne ahalmek ezagutzeko, baita arriskuak eta aukerak ezagutzeko ere. Haren helburua VGIEren barneko eta inguruneke egoeraren berri ematen duten ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak (AMIA) identifikatzea da, baliagarriak baitira Plan Estrategikoa egiteko.

AMIA analisiak bi zati ditu: kanpo analisia eta barne analisia.

Kanpo analisia: Plan Estrategikoaren aldien ikastegiak izan ditzaken Mehatxuak eta Aukerak identifikatu behar dira. Bi kanpo faktore horiek aldeko edo kontrako eragina izan dezakete, Planean aurreikusitako helburuak lortzeari begira.

Honako gai hauek aztertu ziren:

- Lehia
- Balizko ikasleak
- Lan ingurunea
- Unibertsitateko administrazio ingurunea
- Gizarte ingurunea
- Irakaskuntza ingurunea
- Ikerketa ingurunea

Barne analisia: Horren bidez, GVIEren Indarrak eta Ahuleziak identifikatu nahi dira, ikastegiaren errealitatea deskribatzen baitute eta ikuspuntu estrategiko batetik kontsideratu behar baitira.

Honako gai hauek aztertu ziren:

- Prestakuntza
- Ikerketa
- Sailen kudeaketa
- Ikastegiaren kudeaketa
- Harreman pertsonalak: irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak
- Harremanak: irakasle-ikertzaileak-ikasleak
- Gizartearekiko harremana

Ikuspegia lortzeko, VGIEn lan taldeak bost ardatz estrategiko hauek definitu ditu:

- 1. Prestakuntza
- 2. Ikerketa
- 3. Gizartearekiko harremana
- 4. Pertsonak
- 5. Gobernantza eta baliabideak

Hasierako AMIAren elementuak zehaztu eta antolatu dira, ardatz estrategiko bakoitzeko. Jarraian, ekarpenak berrikusi eta lehenetsi ondoren, AMIAren analisiaren emaitza erakusten dugu.

## Ahuleziak

### Prestakuntza

A1: Graduondokoaren eskaintza urria.

A2: Ikasleen prestakuntza maila txikia zeharkako gaitasunetan.

A3: Prestakuntza eskaintza urria ingelesez.

A4: Euskarazko prestakuntza eskaintzaren gabezia.

A5: Errendimendu akademiko eskasa eta abandonu kopuru handia, lehen mailan.

A6: Matrikulazio kopuru urria zenbait titulutan.

A7: IKD ereduarekin lan egiten duten irakasle talde egituratuen kopuru urria.

A8: Enpresen parte hartze eskasa, ikasleen prestakuntza akademikoan (bisita kopuru txikia).

A9: Prestakuntza Plana osatzeko aukerei buruzko informazio gutxi ikasleentzat.

A10: Estrategia zehatzen gabezia, jasangarritasunaren eta gizarte erantzukizunaren gaia prestakuntza eta ikerketaren barruan zeharka sartzeko.

#### Ikerketa

A11: Ikertalde eta INen kopuru urria Ikastegian.

A12: Estrategia zehatzen gabezia, jasangarritasunaren eta gizarte erantzukizunaren gaia zeharka sartzeko prestakuntza eta ikerketaren barruan.

#### Gizartearekiko harremana

A13: Emakume gutxi graduako tituluetan.

A14: Enpresen parte hartze eskasa, ikasleen prestakuntza akademikoan (bisita kopuru txikia).

A15: Zailtasunak euskararen erabilera unibertsitateko bizitzaren arlo guztietara zabaltzeko.

#### Pertsonak

A16: Ikasleek ingeniari lanbideari eta enplegarritasunari buruzko datuak ez ezagutzea.

A17: Nazioarteko mugikortasunen bat egin duten ikasleen kopuru urria.

A18: Irakasle-ikertzaileen motibazio eza beren eginkizunak betetzeko.

A19: Irakasle-ikertzaileen inplikazio falta, ikastegiaren gobernantzan.

A20: Aldi baterako/bitarteko lanpostu ugari AZPko plantillan, LEP deialdirik ez egitearen ondorioz.

A21: Irakaskuntzari eta ikerketari laguntzeko AZPko langileen gabezia.

A22: Zailtasunak euskararen erabilera unibertsitateko bizitzaren arlo guztietara zabaltzeko.

#### Gobernantza eta baliabideak

A23: Irakasle-ikertzaileen inplikazio falta, ikastegiaren gobernantzan.

A24: Marketin estrategia eta Komunikazio Plan baten gabezia.

## **Indarrak**

#### Prestakuntza

I1: Kalitatezko prestakuntza graduon eta graduondoan.

I2: Kalitate eta berrikuntza akademikoa, IKD hezkuntza eredu propioari eta DOCENTIAZ, EHUNDU eta beste programa batzuei esker.

I3: Ikastegiko egresatuen laneratze maila ona.

I4: Gradu bikoitzen portzentaje altua, ikastegiko gradu eskaintza osoarekiko (Ikasleei hainbat ezagutza mota eskuratzea ahalbidetzen die).

I5: Ikasleentzat izugarri erakargarria den titulazio duala, ikastegian.

I6: Curriculumez kanpoko praktika akademikoak egin dituzten ikasleen portzentaje altua.

I7: Harrera plana ikasle berrientzat.

I8: Mugikortasun plazen eskaintza handia.

I9: Jasotako prestakuntzarekiko egresatuen gogobetetze maila ona.



I10: Ikasleak hartzeko prozesu finkatuta.

#### Ikerketa

I11: Harreman estua bertako enpresa eta erakunderekin.

#### Gizartearekiko harremana

I12: Harreman onak Bigarren Hezkuntzako Zentroekin.

I13: Enpresa mintegiaren eskuragarritasuna.

I14: Harreman estua bertako enpresa eta erakunderekin.

#### Pertsonak

I15: Irakasle-ikertzaileen hurbiltasuna ikasleekiko.

I16: Prestakuntza akademiko handia duten eta ikastegian asko inplikatzeko diren AZPko langileak.

#### Gobernantza eta baliabideak

I17: Kanpo agentziek (AUDIT, Euskalit, etab.) egiaztatutako sistemak.

I18: Irakaskuntza eta ikerketarako azpiegitura eta instalazio egokien eskuragarritasuna.

I19: Eskolara iristeko erraztasuna, hirian ongi kokatuta dagoelako.

## **Mehatxuak**

#### Prestakuntza

M1: Jaitsiera demografikoa Euskadin.

M2: Prestakuntza eskaintzearen igoera beste zentro eta unibertsitate batzuetan.

#### Ikerketa

M3: Administrazio Publikoaren finantzaketa urria, jarduera mantentzeko eta proiektu berriak martxan jartzeko.

M4: Ikertalde asko baliabide berberak eskuratzeko lehian.

#### Gizartearekiko harremana

M5: Enpresa ehunak, elkarteek eta kluster sektorialek ikastegia eta unibertsitatea beren prestakuntza beharretatik urrun ikusten dituzte.

M6: Bokazio zientifikoaren eta teknologikoaren gabezia, bereziki emakumeen artean.

#### Pertsonak

M7: Ikerketa, irakaskuntza, zuzendaritza eta kudeaketa jardueren balorazio desorekatua; irakasle-ikertzaileen akreditaziorako irizpideak maiz aldatzen dira, agentzien ebaluazio sistemen arabera.

#### Gobernantza eta baliabideak

M8: Lege eta finantza esparruak AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen politika egokia oztokatzen du.

M9: Administrazio Publikoaren finantzaketa urria, jarduera mantentzeko eta proiektu berriak martxan jartzeko.

M10: COVID-19aren ondoriozko krisi ekonomikoa.

## Aukerak

### Prestakuntza

A1: Ikasleen interesa Ikastegiko gradu bikoitzekiko.

A2: Eraldaketa teknologikoa, profesional profil berriak eskatzen dituen ingurune teknologiko berriari egoki erantzuteko.

A3: Enpresa ehunean eta ingurune sozioekonomikoan berrikuntza txertatzearen beharra.

A4: Probintzia mugakideetako ikasleak erakartzea ahalbidetzen duen egoera geografikoa.

A5: COVID-19aren krisitik eratorritako metodologia berrietara egokitzea.

### Ikerketa

A6: Gizarteak ikertzaileen lana eta gizartearen aurrerabiderako ikerketaren garrantzia aitortzen du.

A7: Enpresa ehunean eta ingurune sozioekonomikoan berrikuntza txertatzearen beharra.

### Gizartearekiko harremana

A8: Enpresa ehunen, elkarteen eta kluster sektorialen interesa prestakuntza praktikorako eta zeharkako gaitasunen garapenerako.

A9: Gizarteak ikertzaileen lana eta gizartearen aurrerabiderako ikerketaren garrantzia aitortzen du.

A10: Inguruarekiko lotura handiagoa, komunikazio kanal berrien bidez.

A11: Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruko politikak (2030eko Agenda).

A12: Europako erakunde eta sareen sentsibilitatea, mugikortasuna eta lankidetzak sustatzen duten irakaskuntza eta ikerketa ekimenak bultzatzeko.

## 7. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Estrategia VGIEk Ikuspegiaren lerroak lortzeko abian jartzea erabaki duen neurrien multzoa da. Ikastegiko baliabideak, prozesuak eta pertsonak nola mobilizatuko diren zehaztu behar da, Ikuspegiaren bidez adierazitako nahiak errealitate bihurtzeko.

Ikuspegiak ZER lortu nahi den zehazten du, eta Estrategiak, berriz, Ikuspegia errealitate bihurtzeko baliabideak NOLA konbinatu behar diren. Ikuspegiaren lerroak lortzeko, VGIEren lan taldeak helburu estrategiko batzuk definitu, eta bost ardatz estrategiko hauetan multzokatu ditu:

1. Prestakuntza
2. Ikerketa
3. Gizartearekiko harremana
4. Pertsonak
5. Gobernantza eta baliabideak

Bestalde, Plana hedatzeari begira, helburu estrategikoak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintzak definitu dira. Lerro estrategikoen arabera Aukeren, Mehatxuen, Indarren eta Ahulezien arteko korrelazioen analisiak hazkunde, mantentze, zuzentze eta kontingentzia neurriak zehazteko aukera ematen du. Helburu bakoitzean kokatutako ekintzak honako hauek dira:

## 1. ARDATZA. PRESTAKUNTZA

Prestakuntza ardatz estrategiko gakoa da, eta osoki lotuta dago VGIEren Egitekoarekin. Hasitako bikaintasun bidean aurrera egiteko asmoz eta AMIA analisiaren emaitza ikusita, beharrezkotzat jotzen da prestakuntza eskaintzaren euskalduntzean aurrera egitea, ikasleen prestakuntza eta nazioartekotzea bultzatzea, eta kolektibo hori bera erakartzeko gaitasuna indartzea. Era berean, ikasleen prestakuntzarako enpresen parte hartzea indartu behar da.

<b>1.1.HE. Ikasleak erakartzea.</b>	
Ekintzak	Arduradunak
1.1.1.EE. Unibertsitate aurreko ikasleen orientazioa areagotzea.	Idazkari akademikoa
1.1.2.EE. Prestakuntza eskaintza unibertsitate aurreko ikasketetan zabaltzeko estrategia bat garatzea.	Zuzendaria Idazkari akademikoa Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
1.1.3.EE. Online irakaskuntza bultzatzea graduondoko ikasketetan.	Idazkari akademikoa Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
1.1.4.EE. Emakumezko ikasleak erakartzeko ekintzak bultzatzea.	Idazkari akademikoa Berdintasun Batzordea
<b>1.2.HE. Emaitza akademikoak hobetzea eta ikasleen prestakuntza hobetzea.</b>	
Ekintzak	Arduradunak
1.2.1.EE. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan metodologia berritzaileen erabilera sendotzea.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
1.2.2.EE. Ikasleen prestakuntza areagotzea zeharkako gaitasunetan.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
1.2.3.EE. Ikasleen etengabeko orientazioa bultzatzea, prestakuntza ibilbideei etekin handiagoa ateratzeko.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea Akademia Antolakuntzako zuzendariordea
<b>1.3.HE. Ikasleen prestakuntzan enpresen parte hartzea indartzea.</b>	
Ekintzak	Arduradunak

1.3.1.EE. Enpresekiko aliantza berriak ezartzea eta lehendik zeudenak mantentzea.	Enpresekiko zuzendariordea	harremanetarako
1.3.2.EE. Enpresekin harremanetan jartzea (bilerak, foku taldeak), prestakuntza eskaintza behar teknologiko berrietara egokitzeko.	Enpresekiko zuzendariordea	harremanetarako
1.3.3.EE. Enpresetara bisita gehiago egitea eta profesionalen parte hartzea areagotzea irakaskuntzan.	Enpresarekiko zuzendariordea	harremanetako Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
1.3.4.EE. Testuinguru profesional errealean ikaskuntza bultzatzea, prestakuntza dualaren, enpresetako praktiken eta GRALaren bidez.	Zuzendaria Enpresekiko zuzendariordea Antolakuntzako zuzendariordea	Harremanetako Akademia
1.4.HE. Prestakuntza eskaintzaren euskalduntzean aurrera egitea.		
Ekintzak		
1.4.1.EE. Euskarazko prestakuntza eskaintza areagotzea.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Idazkari akademikoa Euskara Batzordea	
1.4.2.EE. GRAL/MAL gehiago egitea euskaraz.	Akademia zuzendariordea Euskara Batzordea	Antolakuntzako
1.5.HE. Ikasleen nazioartekotzea bultzatzea.		
Ekintzak		
1.5.1.EE. Ingeleseko ibilbideei buruzko azterlan bat bultzatzea.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea	
1.5.2.EE. Hirugarren hizkuntzetan GRAL/MAL gehiago egin daitezen bultzatzea.	Akademia zuzendariordea Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea	Antolakuntzako
1.5.3.EE. Truke akademikoko esperientziei buruzko jardunaldiak antolatzea, ikasleak parte hartzera animatzeko.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea	
1.5.4.EE. Nazioarteko titulu bikoitzak mantentzea eta bultzatzea.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea	

## 2. ARDATZA. IKERKETA

Ikerketaren kudeaketa sailei eta ikertaldee dagokien arren, garrantzitsutzat jotzen dugu VGIEk horretan ere esku hartzea, ikertaldearen arteko harremanak bultzatzeko eta ikerketa jardueren difusioa hobetzeko.

2.1.HE. Ikertaldearen arteko harremana erraztea.	
Ekintzak	Arduradunak
2.1.1.EE. VGIEko hainbat jakintza arlotako ikertalde edo pertsonen ateko lankidetzak bultzatzea.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
2.1.2.EE. Ikerketa eta esperientzien trukeko jardunaldiak programatzea.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
2.2.HE. Ikastegiko ikertaldee laguntzea.	
Ekintzak	Arduradunak
2.2.1.EE. Taldeek egindako ikerketa jardueren difusioa hobetzea.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
2.2.2.EE. Eskolako ikerketa lerroak eta baliabideak enpresetan zabaltzea.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
2.2.3.EE. Teknologian eta jakintzetan berrikuntza beharrei erantzuteko soluzioak ezartzeko interesa duten enpresa eta erakunde teknologikoekin harremanetan jartzea.	Enpresekiko Harremanetako zuzendariordea Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea

## 3. ARDATZA. GIZARTEAREKIKO HARREMANA

VGIEk, unibertsitate ikastegi bat den neurrian, zeregin garrantzitsu bat du gizartearen, jakintzaren motore gisa eta ikerketaren eta aurrerapen teknologikoaren bultzatzaile gisa. Hori dela eta, oinarritzat da Plan Estrategikoak bokazio zientifikoak garatzeko eta jakintza sortu eta transferitzeko ekintza espezifikoak biltzea.

Horrez gainera, ezin da albo batera utzi egindako lanari ikusgarritasuna ematearen beharra, eta gizarteak ezagutu behar du bai ikastegi honek prestakuntzan eta ikerketan betetzen duen zeregina, bai haren ekarpena, gizarte erantzukizunaren edo garapen jasagarriaren ikuspegitik.

3.1.HE. Bokazio zientifikoak garatzea.	
Ekintzak	Arduradunak
3.1.1.EE. Hezkuntza zientifiko eta zientziaren dibulgazioa bultzatzea hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleentz artean.	Zuzendaria Idazkari akademikoa

3.1.2.EE. Erakundeek arlo horretan bultzatutako jardueretan eta lan taldetan parte hartzea.	Zuzendaria
3.1.3.EE. Tituludun berrien parte hartzea bultzatzea ekitaldi akademikoetan, proiektio publikoa emateko.	Akademia Antolakuntzako zuzendariordea Idazkari akademikoa
3.2.HE. Jakintza sortzeko eta transferitzeko traxzio eragilea izatea.	
Ekintzak	Arduradunak
3.2.1.EE. Enpresa ehunarekiko eskolaren lankidetzat bultzatzea, ikastegian enpresen presentzia areagotzeko.	Zuzendaria Enpresekiko harremanetarako zuzendariordea
3.2.2.EE. VGIEren eskaintza zientifiko-teknologikoa eguneratzea eta zabaltzea, lankidetzat errazteko enpresa ehunarekin eta ingurune erakundeekin.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Enpresekiko harremanetarako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
3.2.3.EE. Prestakuntza etengabearen eta berezko tituluen eskaintza programazio bat prestatzea eta zabaltzea.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Enpresekiko harremanetarako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
3.3.HE. VGIEk bere inguruari egiten dion ekarpena ikusgai bihurtzea.	
Ekintzak	Arduradunak
3.3.1.EE. Difusio plan bat egitea, komunikazio kanal berrien erabilera barne hartuko duena.	Zuzendaria Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
3.3.2.EE. VGIEk egindako ekintzak zabaltzea, hainbat euskarri erabilia.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
3.4.HE. Garapen jasangarria sustatzea.	
Ekintzak	Arduradunak
3.4.1.EE. Garapen jasangarriaren inguruko lankidetzat lana bultzatzea kolektiboen artean.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
3.4.2.EE. Erakunde taldetan parte hartzea, jasangarritasunaren arloan.	Zuzendaria Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
3.4.3.EE. Jasangarritasunari lotutako prestakuntzarako curriculum ekintzak garatzea.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea

## 4. ARDATZA. PERTSONAK

Irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak giltzarriak dira ezarritako Ikuspegia errealitate bihurtzeko. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen da ikastegiko unibertsitateko kideen gogobetetzea, prestakuntza eta parte hartzea hobetzea.

4.1.HE. Irakasle-ikertzaileen ibilbide akademikoaren garapena bultzatzea.	
Ekintzak	Arduradunak
4.1.1.EE. Orientazio zerbitzuak eskaintzea, lortu beharreko helburuei buruz informatzeko, ibilbide akademikoaren mailak eta UPV/EHUn eskura dauden laguntzak aintzat hartuta.	Zuzendaritza Taldea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
4.1.2.EE. Artikulu zientifikoak itzultzeko laguntzak ezartzea.	Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
4.2.HE. Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen parte hartzea bultzatzea ikastegiko proiektuetan.	
Ekintzak	Arduradunak
4.2.1.EE. Langileak eskolaren hezkuntza proiektuan inplikatzearen garrantziaz kontzientziatzea.	Zuzendaria Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Ikastegiko administraria
4.2.2.EE. Irakasle-ikertzaileek eta AZPko langileek ikastegiko hezkuntza eta kudeaketa proiektuetan duten parte hartzeari buruzko azterlan bat egitea.	Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Ikastegiko administraria
4.3.HE. AZPko langileak ikastegiko beharretara egokitzea.	
Ekintzak	Arduradunak
4.3.1.EE. AZPko langileen garapen profesionalerako tresnak identifikatzea.	Ikastegiko administraria
4.3.2.EE. Lan taldeak ezartzeko formulak aztertzea, kudeaketa errazte aldera.	Zuzendaritza Taldea Ikastegiko administraria
4.4.HE. Euskararen erabilerearen normalizazioa finkatzea.	
Ekintzak	Arduradunak
4.4.1.EE. Euskararen erabilera sustatzea unibertsitate zerbitzuetan.	Euskara Batzordea
4.5.HE. Lankidetzeta, berdintasun eta pentsamendu kritikoaren unibertsitate balioak sustatzea, ikasleen artean.	
Ekintzak	Arduradunak
4.5.1.EE. Unibertsitate balioak lantzeko jarduerak antolatzea.	Zuzendaritza Taldea

4.5.2.EE. Elkartasun, kultura arteko edo garapenerako lankidetzak jardueri buruzko GRALak egin daitezzen bultzatzea.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
--	--

## 5. ARDATZA. GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

Ardatz honetan lerro nagusiak finkatzen dira VGIEren kudeaketa aurreratuko sistema hobetzeko, eskolak gizartean duen presentzia indartzeko eta haren baliabideak optimizatzeko.

<b>5.1.HE. Kudeaketa Aurreratuko Sistemaren ezarpenean aurrera egitea.</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
5.1.1.EE. Urtero hobekuntzak eta aurrerapenak ezartzea, Ikastegiko Kudeaketa Integratuko Sistemaren.	Zuzendaritza Taldea Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
5.1.2.EE. Kudeaketa Sistemaren adierazleen joerak berrikustea, mugak egungo egoerara egokitzeko.	Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
5.1.3.EE. Ikastegiko langileek prozeduren berrikuspenean inplikatzeko.	Zuzendaria Kalitate eta Ingurumeneko zuzendariordea
<b>5.2.HE. Eskolak gizartean duen presentzia indartzea.</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
5.2.1.EE. Komunikazio estrategia bat zehaztea.	Zuzendaria Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea
5.2.2.EE. Eskolaren aurkezpen korporatibo bat egitea, haren jardueraren datu esanguratsuenak erakutsiko dituen.	Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
5.2.3.EE. Beste unibertsitate batzuekiko komunikazio kanalak indartzea.	Zuzendaria Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako zuzendariordea Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea
<b>5.3.HE. Irakaskuntza eta ikerketarako azpiegitura eta instalazioen erabilera optimizatzea.</b>	
<b>Ekintzak</b>	<b>Arduradunak</b>
5.3.1.EE. Espazioen eta instalazioen erabilerari buruzko azterlan bat egitea.	Ikasketa Plangintza eta Irakasleen arloko zuzendariordea Ikastegiko administraria



## 8. ADIERAZLEAK

Ikuspegiak eta helburu estrategikoen eskolaren nahiak erakusten dizkigute. Horiei lotutako adierazleak, berriz, aurretik helburuak planteatzea eta ondoren horien betetze maila ebaluatzea ahalbidetzen digute.

Hurrengo laukian, helburu estrategikoak eta horiei lotutako adierazleak jasotzen dira, ardatz estrategiko bakoitzaren arabera antolatuta.

Adierazi behar da hemen ageri diren adierazleak ez direla ikastegiak kudeatu behar dituen bakarrak, baizik eta eskolaren aurrerapena kontrolatzea, zuzentzea eta ebaluatzea ahalbidetzen dutenak 2021-2023 aldirirako Plan Estrategikoan ezarritako bidean.

1. Ardatza. Prestakuntza	
Helburu estrategikoak	Adierazleak
1.1.HE. Ikasleak erakartzea	Bisitatuak bigarren hezkuntzako ikastetxeen kopurua.
	Parte hartu den unibertsitate orientazio jardunaldien kopurua.
	Lehen mailan ikasle berrien matrikularen igoera (%).
	Tituluaren egokitzapena.
	Tituluaren okupazioa.
	Tituluaren lehenespena.
1.2.HE. Emaita akademikoak hobetzea eta ikasleen prestakuntza indartzea.	IKD Irakasle Talde Egituratu (EHUNDU 2017) bateko kideak egiaztatzen duten irakasleen kop.
	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen (HBP) kop.
	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetan (HBP) parte hartzen duten irakasleen kop.
	Hobekuntza eta aldaketa proposamenen kop.
	Irakaskuntzarekiko gogobetetze maila.
	DOCENTIAZen ebaluatutako irakasle-ikertzaileak (%).
	Ikasketak 1. urtean uzten dituztenen tasa (CURSA).
	Ikasketak uzten dituztenen tasa (1393 ED).
	Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa).
	Graduatze tasa.
	Errendimendu tasa.
	Errendimendu tasa 1. mailan.
	Arrakasta tasa.
Arrakasta tasa 1. mailan.	
Egresatuen gogobetetze maila.	

	Gogobetetze maila orokorra.
1.3.HE. Ikasleen prestakuntzan enpresen parte hartzea indartzea.	Enpresetan eginiko GRAL kop.
	Enprekin eta beste erakunde batzuekin ikasleen curriculumeko praktikak egiteko sinatutako hitzarmenen kopurua.
	Ikaskuntzari lotuta kanpo profesionalek eginiko bisita kopurua.
	Ikasleek, curriculumaren barruan, kanpo erakundeetara eginiko bisiten kopurua.
	Enpresekiko harremanak egin dien ekarpenari buruzko ikasleen gogobetetze maila.
	Ikasleekiko enpresaren gogobetetze maila orokorra.
	Ikastegiak ikasleen curriculumez kanpoko praktikak bideratzeko enprekin eta beste erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenen kopurua.
1.4.HE. Prestakuntza eskaintzaren euskalduntzean aurrera egitea.	Euskaraz emandako irakasgaiak (%).
	Lehen mailako ikasle berrien matrikulazioa euskaraz.
	Euskaraz egindako/defendatutako GRAL kopurua.
1.5.HE. Ikasleen nazioartekotzea bultzatzea.	Beste hizkuntza batzuetan defendatutako GRAL kopurua.
	Ikasle atzerritarren harreran parte hartzen duten ikasleen kopurua.
	Bidalitako ikasleen kopuru osoa/Mugikortasunen bat egin duten egresatuen ratioa.
	Ikasketetarako truke programetan eskainitako plazen kopurua.
	Mugikortasun hitzarmenetan bazkide diren unibertsitateen kopurua.
Etorritako ikasleak guztira.	

## 2. Ardatza. Ikerketa

Helburu estrategikoak	Adierazleak
2.1.HE. Ikertaldeen arteko harremana erraztea.	Ikastegiak antolatu/babestutako dibulgazio jardueren kopurua.
2.2.HE. Ikastegiko ikertaldeei laguntzea.	Hitzaldi kopurua kongresu/jardunalditan.
	Parte hartzen den erronken kopurua.
	Ikerketa lerroak lantzeko akordioak sinatu dituzten enpresen kopurua.

## 3. Ardatza. Gizartearekiko harremana

Helburu estrategikoak	Adierazleak
3.1.HE. Bokazio zientifikoaren garapena	Ikasle ez-unibertsitarioei bideratutako jardueren kopurua.

	Jarduera praktikoetan parte hartu duten ikasleen kopurua.
	Jarduera praktikoetan parte hartu duten ikasleen gogobetetze maila.
	Dibulgazio jardueretan ikastegiekin lankidetzan ari diren VGIEko ikasleen kopurua.
3.2.HE. Jakintza sortzeko eta transferitzeko trakzio eragilea izatea	Ikasleen praktikak bideratzeko ikastegiak enpresekin eta beste erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenen kopurua.
	Prestakuntza etengabeari buruzko ikastaroak eta berezko tituluak.
	Enpresa eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaren hitzarmenen kopurua.
3.3.HE. VGIEk bere inguruari egiten dion ekarpena ikusgai bihurtzea	Agerraldiak hedabideetan.
	Bisita kopurua eskolako sare sozialetan.
3.4.HE. Garapen jasangarria sustatzea	Ikastegian egindako jasangarritasun proiektuen kopurua (CBL eta IKD3)
	Egindako jasangarritasun ekintzen kopurua.
	Parte hartzen den erakunde taldeen kopurua.

4. Ardatza. Pertsonak	
Helburu estrategikoak	Adierazleak
4.1.HE. Irakasle-ikertzaileen ibilbide akademikoaren garapena bultzatzea.	Bosturtekoen kopurua.
	Seiurtekoen kopurua.
	Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako IRI doktoreak (%).
	Ikastegiari atxikitako IRI doktore iraunkorrak (%).
4.2.HE. Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen parte hartzea bultzatzea ikastegiko proiektuetan.	Irakasle-ikertzaileen/AZPko langileen gogobetetze maila.
	Ikastegiko kudeaketa organoetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileak (%).
	Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten AZPko langileak (%).
4.3.HE. AZPko langileak ikastegiko beharretara egokitzea	Administrazio eta zerbitzuetako langileak egindako ikastaroak.
4.4.HE. Euskararen erabileraren normalizazioa finkatzea	Euskara profila duten irakasle-ikertzaileak (%).
	Euskararen erabilera sustatzeko antolatutako jardueren kopurua.
OE.4.5. 4.5.HE. Lankidetzaren berdintasun eta pentsamendu kritikoaren unibertsitate balioak sustatzea ikasleen artean	Programatutako jardueren kopurua.
	Elkartasun edo lankidetzaren jarduerak egiteagatik kredituak aitortu zaizkien ikasleen kopurua.
	Jasangarritasunaren arloko GRALen kopurua.

## 5. Ardatza. Gobernantza eta baliabideak

Helburu estrategikoak	Adierazleak
5.1.HE. Kudeaketa Aurreratuko Sistemaren ezarpenean aurrera egitea	Ezarritako hobekuntzen kopurua.
	Berrikusitako adierazleak (%).
	Prozeduren berrikuspenean parte hartzen duten irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen tasa.
5.2.HE. Eskolak gizartean duen presentzia indartzea	Hedabideetan izandako agerraldien kopurua.
	Bisita kopurua sare sozialetan.
5.3.HE. Irakaskuntza eta ikerketarako azpiegitura eta instalazioen erabilera optimizatzea	Ikastegiko espazioen okupazio maila.

## 9. Lan taldea

### Irakasle-ikertzaileak

Estibaliz Apiñaniz  
Xabier Basogain  
Ruperta Delgado  
M<sup>a</sup> Dolores Encinas  
Beñat García  
Zuriñe Gómez de Balugera  
Mikel Larrañaga  
Amaia Mesanza  
Iñaki Ochoa de Eribe  
Jose Antonio Ramos  
Xabier Sancho  
Inmaculada Tazo  
Jose Manuel Valle

### AZPko langileak

María Gastón  
Montserrat López de Arcaute  
Alexander Maiz